

Behatokia du lehen helburuetako bat hastapenetan dagoen Kultura Planak

BILBO

Miren Azkarate sailburuak Kulturaren Euskal Planari buruzko lehen balantzea plazaratu zuen atzo, hura onartu eta bi urtera. Aurretik finkaturiko epeetan atzerapenak izan direla aitortu zuen, baina, oro har, pozik azaldu zen egitasmoaren gauzatzearekin.

Planaren garapenari buruzko zehaztasun guztiak izango ditu aurki, azaroan, Kulturaren Euskal Kontseiluak. Azkaratek esan zuenez, egitura hori berritu egingo da, teknologia, kultura digitala, euskal bibliografia, musika modernoa zein itzulpengintza arloetan jarduten diren pertsonekin osatzeko; orain arte ordezkapen handirik izan ez duten alorretan ari diren lagunak deituko dituzte bileretara.

Lakuako Gobernuaren eledunak iragarri zuen martxan dela dagoeneko Kulturaren Euskal Behatokia. Estatistika, azterketa mailan dagoen hutsunea betetzea da bere izateko arrazoia. Informazioa jaso eta urtean behin kulturaren egoerari buruzko txosten bat emango du. 2006-2008 fasera milioi eta erdi euroko aurrekontua izango du urtean. Arduradun bat badu eta Gasteizen izango du egoitza.

Etxepare Institutuaren sorrera da epe laburrera jarritako beste helmugetako bat, Azkaratek esan zuenez. Euskara eta euskal kultura atzerrian sustatzea izango da bere zeregina. Bertoko artistak kanpoan ezagutaraztea edukiko du beste ardura. Bestetik, Hezkuntza Sailarekin batera, arte eszenikoentzako goi eskola baten bideragarritasuna aztertzen ari dira. Gurutz Larrañaga sailburuordeak nabarmendu zuen liburutegien eta museoen legeak Legebiltzarrean daudela eta Lurreko Telebista Digital lokalei buruzko dekretua azaroan argitaratuko dela dagozkion baldintza-orriekin.

Larrañagak aipatu zuenez, hogeitaz talde daude lanean Kultura Planean sektore bakoitzari dagozkion alderdiak zehaztu eta aurrera eramateko.